

# ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIAREN EDUKIEN EDIZIOARI ETA KUDEAKETARI, NABARITASUNARI ETA POSIZIONAMENDUARI BURUZKO TXOSTENA (2022)

2023ko urtarrilaren 3a

Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza  
Osasun Saila  
Eusko Jaurlaritza

## AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	3
2.	EKIMENAREN SORRERA ETA BILAKAERA.....	3
3.	EDUKIEN EDIZIOA ETA KUDEAKETA .....	5
3.1.	EDUKIEN BERRIKUSPENA ETA ESTANDARIZAZIOA.....	6
3.2.	BASS-EN HEDAPEN-ZERRENDAK ARAZTEA .....	8
4.	POSIZIONAMENDUA ETA NABARITASUNA .....	9
4.1.	EDUKIEN KONTSUMOA ATARIAN: BISITALDIAK ETA ORRI BISITATUAK.....	10
4.2.	BALIABIDE SOZIOSANITARIOEN MAPA .....	14
4.3.	WEB-ERABILERRAZTASUNEKO IRIZPIDEAK .....	17
4.4.	POSIZIONAMENDUA GOOGLE.ES-EN .....	18
5.	ONDORIOAK .....	19
	ESKERTZEAK.....	21

## 1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak txosten hau egin du, elkarrekin segidako bigarren urtez, Arreta Soziosanitarioaren Atarian 2022an egindako jardueren berri emateko. Atari hori da EAEko arreta soziosanitarioari buruzko ezagutza sustatzeko eta zabaltzeko webgune instituzionala.

Osasun Sailak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak batera kudeatzen duten ekimena da Arreta Soziosanitarioaren Ataria.. 2016ko apirilaz geroztik, astean behin eguneratzen ditu ataletako edukiak. Gaur egun, ekimen hau 2021-2024 aldirako EAEko Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren 5. arloan kokatzen da, eta EAEko ekosistema soziosanitarioaren barruan ezagutza sortzeko, partekatze eta transferitzeko diseinatuta dago.

Ekimena abiatu zenetik sei urte igaro ondoren, Arreta Soziosanitarioaren Ataria erakundeek EAEko koordinazio soziosanitarioko ereduarekin hartutako konpromisoaren erakusgarri bikaina da, eta agerian uzten du, batik bat, ezagutza dela berrikuntzaren eta ekosistema soziosanitarioak behar duen eraldaketaren giltzarria.

Txosten honetan aletu dira EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak prospekzioan eta zaintza estrategikoan 2022an egin dituen lanak, bai eta Arreta Soziosanitarioaren Atariko edukien edizioan eta kudeaketan egindakoak ere, atariaren bidez ezagutza zabaldu eta sustatzearen helburua betetzeko. Horrela, hurrengo orrialdeetan, Atariko ataletan 2022an sortu eta argitaratutako edukiei buruzko informazioa ematen da, eta, horiekin, zenbait emaitza-adierazle ere bai, plataformak 2022an web-unibertsoan lortutako posizionamendua eta nabaritasun-maila erakusten dutenak.

## 2. EKIMENAREN SORRERA ETA BILAKAERA

Proiektu honen jatorria dira *Arreta Soziosanitarioko Ildo Estrategikoak (2013-2016)*. Dokumentu estrategiko horrek 2. *Ildoa*. Informazio eta komunikazio soziosanitarioko sistema delakoan webgune bat diseinatu eta martxan jartzea proposatzen zuen helburutzat, informazio estrategikoa, gaurkotasun-gaiak eta EAEko herritarrentzako arreta soziosanitarioko baliabideen zerbitzu-informazioa aurkezteko.

Izan ere, baliabide soziosanitarioei buruzko zerbitzu-informazio hori da Arreta Soziosanitarioaren Atariaren ernamuina. 2015ean, horiei buruzko oinarrizko informazioa iragartzeko asmoz, informazio-egitura zabalago bat garatzeari ekin zitzaion; web-plataformaren formatua izango luke bi helbururi erantzuteko: herritarren arreta soziosanitarioko beharrei erantzuten zieten baliabideei buruzko informazioa eskaintzea eta, orobat, aditzera ematea EAEko arreta soziosanitarioko ereduaren bereizgarriak, hots, gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemen lankidetzeta eta lan koordinatua.

Horrela, Arreta Soziosanitarioaren Atariaren hasierako bertsioak hainbat eduki-atal zituen, EAEko Baliabide Soziosanitarioen Mapaz gain.

2016ko apirilean lehen aldiz argitalpena egin zuenetik, Arreta Soziosanitarioaren Atariaren web-arkitektura aldatu egin da, batik bat, atalak egokitu direlako, eta berriak gehitu zaizkiolako (Buletina eta Iritzia, besteak beste) identifikatutako komunikazio-beharren arabera.

Ildo horretan, azpimarratu behar da 2017ko maiatzean, Arreta Soziosanitarioaren Atariaren edukien edizio eta kudeaketako lanekin jarraitzeaz gain, Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak proiektu bat abiarazi zuela edukien argitalpena optimizatu, eta posizionamendu digital naturala (SEO) eta atariak sarean duen nabaritasuna hobetzeko. Egungo Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritzako (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) teknikariek lankidetzan, 2017ko ekainean SEO posizionamenduari buruzko azterlan bat osatu zen. Ondorioz, aldaketak egin ziren plataforma instituzionalaren URLan eta meta-deskribapenean. Orduetik (2017ko ekaina), Arreta Soziosanitarioaren Ataria jarraipen analitikoaren mende dago. Hori dela eta, web-posizionamendua hobetzeko ahalegina sendoagoa da.

Edukiei dagokienez, 2016tik aurrera, Arreta Soziosanitarioaren Atariak indarrean dagoen esparru estrategikoari buruzko informazio eguneratua eskaintzen jarraitu du (*Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoak* (2017-2020), eta berrikiago, *EAEko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024)*), bai eta gaurkotasuneko informazioa (funtsean, albisteak, ekitaldiak eta erreferentzia-dokumentuak), EAEko Baliabide Soziosanitarioen Mapari buruzko informazioa eta egoeran egoerako informazioa, esaterako, COVID-19aren epidemiari eta horren ondorio soziosanitarioei lotua.

Informazio estrategikoa, beharrezko ziren eguneratzeak egiteaz gain –plan eta proiektu soziosanitarioak bete eta ebaluatzearen ondoriozkoa, kasu–, 2016. urteaz gerostik, Arreta Soziosanitarioaren Atarian, bi eduki-ekarpen nabarmen egin dira: lehena, 2017an, Arreta Soziosanitarioko lehen buletina osatzeko hiruhilekoko albisteak bildu eta argitaratuz (2017ko abenduan zabalduko alea), eta bigarrena, oraintsuagokoa, baliabide soziosanitarioen mapako informazioaren eguneratzea eta berrikuspen informatiko eta kontzeptuala eginez (2021eko bertsio eguneratua dago orain eskura).

Azkenik, 2022an, Arreta Soziosanitarioko Atarian argitaratutako edukien tratamendua estandarizatzeko lanari ekin zitzaion. Horretarako, eduki horiei lotutako etiketak esleitzeko prozesua berrikusi eta homogeneizatu da. Helburua da hiztegi elebidun kontrolatu bat izatea (gaur egun 750 termino baino gehiago ditu), bilaketak eginez edukiak modu eraginkorragoan berreskuratzeko eta, oro har, Atariko edukiak web ingurunean hobeto kokatzeko.

### 3. EDUKIEN EDIZIOA ETA KUDEAKETA

Informazio-plataforma den aldetik, Arreta Soziosanitarioaren Atariak edukien edizio eta kudeaketako egin behar ditu astero, eta horiek ezin izango lirateke egin EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak eguneroko egiten duen **prospektiba eta zaintza estrategikoko lanik gabe**.

EAEko ekosistema soziosanitarioarentzat interesgarriak diren edukiak identifikatzeko asmoz, tartean, eta bereziki, nazioarteko joerak, taldeak hileroko edukien proposamen bat egiten du Atariko argitalpenak horretan oinarrituta prestatzeko. Astero eta formatu elebidunean, edukiak Platea gobernu-plataformaren bidez editatzen dira, ondoren argitaratu eta zabaltzeko.

2022an, Arreta Soziosanitarioaren Atariak gaurkotasuneko erreferentziak (albisteak) argitaratu ditu, eta astero helarazi zaizkie Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioko arduradunei eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari (Eusko Jaurlaritza), erreferentzia-dokumentuekin (astean lau argitaratu dira gutxienez, horietako bi COVID-19ari buruzko erreferentzia espezifikoak -2022ko urriaren erdialdera arte-) eta agenda-kontuekin batera (ekitaldiak).

2022an, Arreta Soziosanitarioaren Atarian edukiak egiteko eta argitaratzeko jardura honela laburbiltzen da:

#### 1. irudia. ARRETA SOZIOSANITARIOKO ATARIAREN EDUKIEN JARDUKETA (2022)



Iriduak FLATICON.COM-EKO baliabideekin diseinatu da.

Iturria: Bertan landua

Hiruhileko bakoitzean argitaratutako albisteek Arreta Soziosanitarioko lau buletinerako eman dute (18., 19., 20. eta 21. aleak). Horiek, hiru hilean behin argitaratu dira Arreta Soziosanitarioaren Atarian, eta posta-zerrenda luze-zabal batera bidali dira –2022ko abenduan 3.000 kontu hartzailetik gora zegoen–.

Arreta Soziosanitarioko Atarian 2022an dauden ataletan edukiak sortzeko garatutako jarduera kopuruari dagokionez, adierazi behar da atari hori 2021ean egindakoaren antzekoa dela, honako hauek izan ezik: proiektu estrategikoei buruzko informazioa eguneratzeko eskatutakoa (*Plan eta proiektuen atala*); Arreta Soziosanitarioko Atariko edukien tratamendua berrikusteko eta estandarizatzeko lana, etengabe eguneratutako hiztegi elebidun kontrolatu bat izateko; eta posta arazteko zereginak, BASSen 19., 20. eta 21. zenbakietako hedapen-zerrendetan jasotakoak.

### 3.1. EDUKIEN BERRIKUSPENA ETA ESTANDARIZAZIOA

Dokumentu-funts garrantzitsu bat izatea –eta astero elikatzea– **etiketen katalogo estandarizatu** baten diseinuaren jatorrian dago. Barne-tresna bat da, elebiduna (euskara-gaztelania), edukiak karakterizatu eta sailkatzeko, edukien tratamenduan homogeneizazioa lortzeko, etiketak hobetzeko, Atariko edukiak web ingurunean kokatzeko eta eraginkortasunez berreskuratzeko.

Berrikuspen-prozesu horren barruan, 2022an, Arreta Soziosanitarioko Atarian 2016tik 2022ko maiatzera bitartean argitaratutako 260 gaurkotasun-erreferentzien edukiei esleitutako etiketa tematikoak biltzen dira.

## 2. irudia. ARRETA SOZIOSANITARIOKO ATARIKO HIZTEGI ELEBIDUN KONTROLATUA EGITEKO BERRIKUSI, ARAZTU, SARTU ETA ESTANDARIZATU BEHARREKO ETIKETA TEMATIKOEN ADIBIDEA (2022)

ETIQUETAS			
Nº	Castellano	Euskera	Propuesta revisión euskera
1	Abandono	Abandonua	* Segun contexto
14	Activismo social	Gizarte-aktibismoa	
15	Adicciones	Adikzioak	
16	Administraciones Públicas	Administrazio publikoak	
17	Adolescencia	Nerabetasun	
18	Agencias de inspección	Ikuskapen agentziak	
19	Agenda compartida	Agenda partekatua	
20	Agentes sociales	Gizarte-agentekak	
21	Agresiones sexuales	Eraso sexualak	
24	Aislamiento social	Gizarte-isolamendua	
25	Alojamiento	Ostatua	
26	Alternativas habitacionales de cuidados	Zaintzen bizitegi-aukerak	Zaintzen-bizitegi alternatiboak
27	Alzheimer	Alheimerra	Alheimerra
28	Ámbito local	Toki-eremua	Toki-eremua
29	Ámbito local	Tokiko eremua	
30	Análisis	Analisia	
31	Ancianidad	Zahartzaroa	


Iturria: Bertan landua

Horrela sortu da Atariko etiketen katalogo elebidunaren 0 bertsioa, **tratamendu elebiduneko 800 termino baino gehiagoz osatua (euskaraz eta gaztelaniaz)**. Ondoren, 0 bertsio horrek berrikusi eta estandarizatzeko prozesu bat izan behar du (prozesu hori terminoak araztean datza, erredundantziak eta polisemiak saihesteko, eta beste termino batzuekiko erlazioak aztertzean, egindako lanen artean), hiztegi kontrolatu bat izateko, termino normalizatuen zerrenda batez osatua. Terminu normalizatu horiek:

- a) kontzeptu bat modu unibokoan adierazten dute,
- b) eta, azken batean, erabilitako terminoak homogeneizatzen dituzte.

Horrela, edukien bilaketetan emaitza zehatzagoak lortzen lagundu nahi da.

### 3. irudia. ARRETA SOZIOSANITARIOKO ATARIKO HIZTEGI ELEBIDUN KONTROLATUA EGITEKO BERRIKUSI, ARAZTU, SARTU ETAESTANDARIZATU BEHARREKO KASUEN ADIBIDEA (2022)



Iturria: Bertan landua

Lehen berrikuspen- eta estandarizazio-lanaren ondoriozko zerrenda 650 terminok osatzen dute (katalogo elebidunaren 1. bertsioa). 2022. urtearen amaieran, eta haren izaera dinamikoaren arabera (aldian behin berrikusi eta estandarizatu behar da), etiketen katalogo elebiduna 750 terminok baino gehiagok osatzen dute. Hiztegi kontrolatu horrek, azken batean, ekosistema soziosanitarioan erabilitako hizkuntzaren mapa kontzeptual bat osatzen du.

### 3.2. BASS-EN HEDAPEN-ZERRENDAK ARAZTEA

#### BASS SISTEMA HEDATZEKO PLATAFORMA ALDATZEA

Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza (Osasun Saila) sortzeak eta, ondoren, 2021ean, Eusko Jaurlaritzaren Arreta Soziosanitarioko Atariaren zuzendaritza estrategikoa eta argitalpen-kudeaketa zuzendaritza horri esleitzeak aldaketak ekarri ditu <sup>1</sup>2022an BASS (Arreta Soziosanitarioko Buletina) hedatzeko prozesuan. Orduan, prozesu hori zuzendaritzak berak hartu zuen bere gain, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzako (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza) langileen laguntza eta lankidetzak teknikoarekin, eta 2022ko ekainean formalizatu zen, BASSeko 19. zenbakiaren hedapena zela eta, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak gauzatu zuen lehena.

2022ko ekainean, BASSeko 19. zenbakia hedatzeko prozesua plataforma berri baten bidez antolatzen da: Spot-Hit<sup>2</sup>. Hala ere, hedapen-prozesuan hobekuntzak ezartzea komeni denez, 2022ko irailean plataforma berri bat aukeratu zen, Mailrelay, BASSeko 20. zenbakia hedatzeko prozesua egiteko (2022ko irailaren 21a).

Bi hedapen-prozesuak aztertuta, ondorioztatzen da bi plataformek emaitza onak eskaintzen dituztela, baina askoz hobekien direla Mailrelay-rekin egindako BASSeko 20. zenbakiaren hedapenaren kasuan (2022ko iraila), eta bistaratze-datuak<sup>3</sup> % 70,6ra iristen direla. Zifra horrek nabarmen gaitzen du BASSeko 19. zenbakia bidaltzeko Spot-Hit plataforma hartuta lortutako bistaratzeen % 27.

Hedapen-plataformaren aldaketek (2022ko ekaina, iraila eta abendua –lehenengoa Spot-Hit-ekin eta ondorengo biak Mailrelay-rekin–) onura garrantzitsuak dakartzate hedapen-prozesu bakoitzak gauzatu ondoren lortutako barne-informazioari dagokionez. Horrela, bi plataformei dagokienez, hedapen-zerrendetan dauden helbide problematikoak identifikatzeko eta arazteko aukera planteatzen da (3.000 erakunde eta ekosistema soziosanitarioko profesional baino gehiagoren posta-kontuek osatuak).

#### BASS-A HEDATZEKO ZERRENDAK. ARAZKETA-PROZESUA

BASSeko 19. zenbakia hedatzeko prozesuaren ondoren, 3.013 posta-konturen bidalketa programatzen da, eta ikusi da zailtasunak daudela Buletina kontuen % 11,7an entregatzeko (354 helbide), eta horiek "entregarik gabeko" gisa katalogatzen dira. "Entregarik gabeko" gisa sailkatutako bidalketen analisiak aldi baterako zailtasunak ditu (sarrera-erretilu bete batek, bideratze-arazoek eta abarrek eragindakoak) eta, beste kasu batzuetan, entrega-arazo iraunkorrek (sarrera-erretilu baliogabeak edo ez-aktiboak).

<sup>1</sup>2017ko abendutik, hilabete horretan zabaldu baitzen Arreta Soziosanitarioko lehen Buletina (BASS, 1. zk.), eta 2022ko martxora arte (BASS, 18. zk.), 18 bidalketa-prozesuak BIOEFek osatu zituen, zerbitzu informatikoak hornitzen dituen kanpoko enpresa baten laguntza teknikoarekin (Sarenet).

<sup>2</sup>Spot-Hit plataformarekin lortutako emaitza onak gorabehera, BASSeko 19. zenbakia hedatzeko prozesua osatzeko hiru bidalketa errepikatu behar direnez (2022ko ekainaren 15ean, 22an eta 29an), beste plataforma alternatibo batzuk baloratu behar dira, eta Mailrelay behin betiko hautatu behar da hedapen-plataforma gisa 2022ko irailean.

<sup>3</sup>Oro har, hedapen-prozesu baten emaitzak ontzat jotzen dira, baldin eta bidalitako elementuaren irekiera % 20tik gorakoa bada.



Entrega-arazo iraunkorrek BASSeko 19. zenbakia hedatzearekin identifikatzeak (akatsen % 67,5) posta-zerrendaren berrikuspen-prozesu bat egiteko aukera ematen du (domeinu zaharkituak helbideetan eguneratzea, erretiratutako profesionalen dagozkien kontuak kontrastatzea eta ezabatzea, eta abar), eta okertzat identifikatutako bidalketen % 53 araztean lortzen da prozesu hori.

BASSeko 20. zk. eta 3.040 posta-helbideetara hedatzeko Mailrelay plataforma aukeratzeak (2022ko iraila), berriz ere, aukera ematen du bidalketaren xede diren posta-kontuekin lotutako akatsak identifikatzeko. Kasu honetan, kontu okerreren kopurua txikiagoa da (% 7,3), eta eskura ditugun datuen ondorioz, berriz ere domeinuak eguneratzen dira eta helbide okerrak<sup>4</sup> eta/edo erretiro-egoeran dauden profesionalak ezabatzen dira.

Nolanahi ere, helbide okerrak ezabatu, zuzendu eta helbide zuzenekin ordezteak eta BASS jasotzeko harpidetza berriak eskatzeak 3.000 kontu hartzaile baino gehiagoko banaketa-zerrenda mantentzea ahalbidetzen du. Horrela, BASSeko 21. dokumentua (2022ko abendua) 3.117 posta-kontura bidaltzen da.

BASSeko 21. zenbakiaren eta hedapen-prozesuaren ondorengo azterketari esker, akats berriak<sup>5</sup> detekta daitezke (20. zenbakiko BASSean identifikatutako horien kopuruaren antzeko ehunekoan, helbide arazotsuen % 7,4 baita), eta araztu egiten dira BASS 22. zenbakiko zerrenda osatzeari begira (2023ko martxoa).

#### 4. POSIZIONAMENDUA ETA NABARITASUNA

Web plataforma den aldetik, Arreta Soziosanitarioaren Ataria posizionamendu digital naturalaren (SEO) eta nabaritasunaren azterketaren mende da, sarean duen egoera eta proiektzioa baloratu ahal izateko.

Arreta Soziosanitarioaren Atariak sarean duen posizioa, erabiltzaileek (publikoak) eduki digitalak kontsumitzeari buruzko beste adierazle batzuekin batera, alderdi garrantzitsuak dira EAEko ekosistema soziosanitarioaren iruditerian Arreta Soziosanitarioaren Atariari buruz dagoen ezagutza-maila zehazteko, eta, hedaduraz, atariko eduki digitalek ekosistema horretako eragileentzat duten interes- eta erabilgarritasun-maila zehazteko.

<sup>4</sup> Adibide gisa, BASSeko 20. zenbakia hedatzean % 7,33ko akatsak gertatu direla adierazten da, hau da, zuzendu beharreko arazoak aipatzen dituzten 223 kontu

Erroreak BASS 20. bidalketan	Kasuak	%
Helbideak zuzentzea (domeinuak, etab.)	74	% 33
Kontuak egiaztatzea	40	% 18
Kontuak ezabatzea	23	% 10
Ezabatu diren egiaztatu gabeko kontuak	86	% 39
3.040 helbidetara bidalia	<b>GUZTIRA</b>	<b>223</b>
		% 100

<sup>5</sup> Erroreak, besteak beste, BASS zerrenda beltzean sartzen duten posta-kontuen, xede-postontzi ez-aktibo edo beteen eta existitzen ez diren domeinuen artean banatzen direnak.

#### 4.1. EDUKIEN KONTSUMOA ATARIAN: BISITALDIAK ETA ORRI BISITATUAK

Web-analitika 2022an atarira egindako bisitei eta eduki digitalen kontsumoari buruz emandako datuen azterketak agerian uzten du **bi adierazleen zifren hazkundera**. Lortutako emaitzek **berresten dute** Arreta Soziosanitarioko Atariak aurreko urteetan (2017tik 2021era) **pixkanaka lortutako posizionamendu- eta nabaritasun-emaitza onak mantentzen direla**.

**Arreta Soziosanitarioaren Atariak jasotako bisitaldiena** adierazle baliagarria da plataformak izandako erabilera zenbatesteko. **Erabilizaile bat edo robot bat atarira sartzen denean gertatzen da bisitaldi bat. Beraz, bisitari bera hainbat aldiz sar daiteke Atarian, eta aldi guztiak bisitaldi desberdintzat hartuko dira, eta hala zenbatu**. Hau da, bisitaria pertsona bera da, baina bereizita zenbatzen dira egiten dituen bisitaldiak.

2022an, **urte osoko eta serie historiko osoko (2017ko apiriletik 2021eko abendura) bisita kopuru handiena erregistratu zen, urtean batez beste 2.444 bisitaldi izan zituela**. Zifra hori Atarira 2021ean egiaztatutako urteko batez besteko 2.428 bisitak baino zertxobait handiagoa da, eta adierazten du **2022an Atarian argitaratutako edukietara sartzen den publikoaren hazkundera txikia izan dela (% 0,65) 2021. urtearekin alderatuta**. Atarira hileroko egiten diren bisiten azterketak berresten du, aurreko urteetan ez bezala, **2022ko lehen seihilekoan biltzen dela Atarira hileroko egiten diren bisita gehien serie historiko osoan (2017ko apiriletik 2022ko abendura), eta hori ez dator bat Atarira 2022ko uztailen<sup>6</sup> eta abuztuan egindako bisitek aurreko urteetan baino beherakada nabarmenagoa izan izanarekin**. Hala ere, 2022ko azaroan egin dira bisita gehien Atarira, 2022. urte osoan, plataformak 3.117 sarrera izan baititu; zifra hori 2021eko azaroko mugarritik hurbil dago, 3.186 sarrera erregistratu baitziren Atarian, serie historiko osoko handiena: 2017ko apiriletik 2022ko abendura.

Bisiten zifrak aztertzean, **ikusien da Atariaren edukiak bisitatzen dituzten ikus-entzuleen hazkundera zertxobait moderatzeko joera dagoela, 2021ean erregistratutako Atariko bisiten eta bisitatutako orrialdeen kopuruak izandako gorakadarekin alderatuta**.


Eduki digitalen kontsumoa zehazteko, kontuan hartzen da bisitari bat Arreta Soziosanitarioaren Atarian zenbat aldiz sartzen den eta zenbatetan kontsultatzen dituen eskuragarri dauden edukiak. **Horrela, kontsultatutako edukiak dira orri bisitatuen kopurua**.

<sup>6</sup> 2022ko uztail eta abuztuan kontsumoen beherakada nabarmenagoa izan da 2021eko portaerarekin alderatuta, baina bat dator COVID-19aren pandemiaren aurreko urteetako (2020 eta 2021) udako kontsumoek Atarian izandako ohiko portaerarekin.

2022an, bisitariak egonkortzeko joera izan arren, bisitariak eduki **argitaratuen kontsumo** nabarmena izan dutela egiaztatu da, **urteko hamabi hilabeteetatik zazpitan hilean 5.000 eduki baino gehiago<sup>7</sup> bisitatu baitira**. Hala, **2022. urterako, Atariko edukien 4.977 kontsumo erregistratu dira batez beste hilean**. Izan ere, 2022ko maiatzean eta azaroan lortzen dira Atariko edukien kontsumoaren bi zifra altuenak serie historiko osoan (2017ko apiriletik 2022ko abendura).

Ondorioz, nahiz eta 2022an ez den igoera nabarmenik izan Atarira egindako bisiten kopuruan 2021arekin alderatuta, **berretsi egin da 2022an edukien kontsumoak hilean izan duen hazkundea (%11)**, eta horrek esan nahi du Atariak publiko fidelizatua duela, normalean astero argitaratzen diren edukietara sartzen dena, eta **horrek esan nahi du 59.719 orrialde bisitatu direla 2022an**.

#### 4. irudia. 2022ko ETA 2021eko ARRETA SOZIOSANITARIOKO ATARIRA EGINDAKO BISITALDIAK ETA BISITEN DATU KONPARATIBOAK



Iturria: Bertan landua<sup>8</sup>. Irudia FLATICON.COM-eko baliabideekin diseinatu da.

<sup>7</sup>Hilabete batean kontsumitutako 5.000 edukiak serie historiko osoko lau alditan lortu ziren (2017ko apiriletik 2022ko abendura): 2018ko otsailean, Lehendakariak ASPEak argitaratu eta jendaurrean aurkeztu zituenean; 2018ko ekainean; 2020ko martxoan, COVID-19aren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera deklaratu zenean; eta 2021eko urrian, Lehendakariak EASS 2021-2024 aurkeztu zuenean.

<sup>8</sup>Atarian izandako bisitaldien/orri bisitatuaren urteko hobekuntza-ehunekoari buruzko datuak formula honen arabera kalkulatzen dira:


$$\frac{B (\text{valor mes XII}) - A (\text{valor mes I})}{A (\text{valor mes I})} \times 100$$

B: x urteko abenduan izandako bisitaldiak/orri bisitatuak balioa; A: urte bereko urtarrilean izandako bisitaldiak/orri bisitatuak balioa.

**2022ko urtarrilarekin alderatuta, ia % 14 jaitsi da 2022ko abenduan bisitatutako orrien kopurua. Horren arrazoia da Atariko edukien kontsumoaren igoera ez dela etengabe eta linealki gertatu, baizik eta bilakaeran beherakada txikiak izan dituela (bereziki, 2022ko uztailean eta abuztuan, eta, neurri txikiagoan, 2022ko abenduan), bai eta susperraldi progresiboak ere (2022ko iraila eta urria).**

Arreta Soziosanitarioaren Atariak izandako bisitaldien eta orri bisitatuen serie historiko osoaren (2017ko apiriletik 2022ko abendura) datu multzoa zabalago aztertuta, plataformako edukien kontsumo digitaleko emaitzek hobera egin dutela ikus daiteke, eta hobekuntza hori zenbatetsi; zenbatespenak bi adierazleak 2017tik hazten ari direla erakusten du, eta, zerra-hortzak gorabehera (beherakadak), aldi-aldi egiaztatzen dira Atariko bisiten eta kontsumoen portaeran, uztailean eta abuztuan, eta, neurri txikiagoan, abenduko hilabete guztietan.

5. irudia. **ARRETA SOZIOSANITARIOKO ATARIRA EGINDAKO BISITA KOPURUA ETA BISITATUTAKO ORRIALDEAK (2017KO APIRILA-2022KO ABENDUA) ETA JOERAK JASOTZEN DITUEN SERIE HISTORIKOA**



Iturria: Bertan landua


Aurreko aldiekin alderatuta, Atariak 2022an izandako eduki digitalen kontsumoei buruzko datuek **erakusten dute** –2021ean gertatzen zen bezala– **kontsumo horietan publikoaren egonkortasuna handiagoa dela, batez ere orrialdeen kontsumoen eta Atarira egindako bisiten gorakadak leuntzen direlako** –Arreta Soziosanitarioko Buletinen hiruhileko hedapenarekin bat datoz–, Atarian egiten diren bisiten eta kontsumoen eraginez. Bisita eta kontsumo horiek **erregulartasunez egiten dira hilero, eta ez hainbeste noizean behin/hiru hilean behin.**

Portaera horri esker, kontsumo digital handia egin da, eta horrek berretsi egiten du **2022an Arreta Soziosanitarioaren Atarian izandako bisitaldien eta orri bisitatuen hileko kontsumoaren goranzko joera.**

Udako hilabeteetan, serie historiko osoan ohikoa den bezala, bisita-kopuruak behera egin du, eta, neurri txikiagoan bada ere, baita bisitatutako orrialdeetan ere. Bi adierazleentarako 2022ko abuztuko datuak (2.830 orrialde bisitatu dira eta 1.435 bisita) 2021eko hil bereko bisita-zifrak (1.540) eta bisitatutako orrialdeak (3.195) baino nabarmen txikiagoak dira. Hala ere, nabarmentzekoa da, halaber, 2022ko udako aldiaren amaieraren ondoren egindako bisiten eta bisitatuko orrialdeen errekuperazioa, abuztuko 1.435 bisitetatik iraileko 2.670etara edo 2022ko azaroko 3.117ra igo baita.

Arreta Soziosanitarioko Atarian bisitatutako orrialdeen kopuruaren gero eta kontsumo-portaera handiagoa 2022ko datu guztiak aztertuta egiaztatzen da, eta, bereziki, 2022ko abenduko datuak aztertuta. Izan ere, datu horiek ez dira urteko handienak, eta abenduan bisitatu diren orrialdeen kopururik handiena lortu dute serie historiko osoan (2017ko apiriletik 2022ko abendura). 4.803 orrialde bisitatu dira, eta, azken batean, desberdintasunak daude aurreko bi urteekin alderatuta: 4.519 (2021eko abendua) eta 4.143 (2020ko abendua) dira bisitatutako orriak.

#### 6. irudia. 2022ko ETA 2017ko ORRIALDE BISITATUEN ETA ARRETA SOZIOSANITARIOKO ATARIRA EGINDAKO BISITEN DATU KONPARATIBOAK



Iturria: Bertan landua<sup>9</sup>.

Irudia FLATICON.COM-eko baliabideekin diseinatu da.

<sup>9</sup> Ikus 11. orri-oineko oharrean azaldutako kalkulu-formula.

Adierazi den bezala, atarira egindako bisiten kopuruak ere hazkunde positiboa izan du, baina nabarmen txikiagoa, hilean behin 2022an erregistratutako bisiten kopuruan, bisitatutako orrialdeen kopuruarekin alderatuta. Portaera hori bisitarien **geldialdi- eta fidelizazio-joera baten parte da, zeinak serie historiko osoko eduki-kontsumoaren daturik altuenak erregistratzen baititu**: 2022an, batez beste, 2.444 bisita izan ziren, aurreko urteetan baino gehiago (2021ean 2.428 bisita lortu ziren, eta 2020an, berriz, urtean 1.454 batez beste).

#### 4.2. BALIABIDE SOZIOSANITARIOEN MAPA

Edukien kontsumoari buruzko azterketan, aipamen berezia egin behar da Baliabide Soziosanitarioen Mapaz, zerbitzu-informazioko arlo oso espezifikoko bat delako.


Atal hori garrantzi bereziko da, Baliabide Soziosanitarioen Mapan argitaratzen den informazioa Eusko Jaurlaritzaren Datu Irekien Katalogoaren (Open Data Euskadi<sup>10</sup>) barne dagoelako. Ekimen horren bidez, baliabide soziosanitarioen datuak hainbat formatutan eskura jartzen dira, gizarteak, oro har (herritarrak, enpresak eta abar), birbanatu, berrerabili eta aprobetxatzeko.

Deskargatutako datu multzoen zerrendan, **fitxategien erabilerari buruzko estatistiken arabera, 2022ko baliabide soziosanitarioei buruzkoa hogeita bigarrena da 2022.10.25ean** (2021.05.13an hamabigarrena zen), Open Data Euskadiko hogeita bost datu multzo deskargatuenen artean.

<sup>10</sup> Open Data Euskadi gobernuaren proiektu bat da, eta 2010. urtetik EAEn datu publikoak irekitzearen alde lan egiten du. Alegia, administrazio publikoaren datuak, eskuragarri egon behar luketenak, ekimen pribatuak eta herritarrek, oro har, aprobetxatu ahal izateko. Herri-administrazioen datuak dira, ekimen pribatua eta, oro har, herritarrak aprobetxatzeko eskuragarri egon beharko luketenak. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak berrerabiltzeko formatuan argitaratzen ditu datuak, hirugarrenek horietatik eratorritako zerbitzuak sortzeko aukera izan dezaten:

- Ekimen pribatuak: merkataritza-asmoko zerbitzuak, herritarrentzako balioa sortzeko xedearekin.
- Beste administrazio publiko batzuk: herritarrentzat baliagarriak diren zerbitzu horizontalak, administrazio eskudunetatik jasotako informazioarekin.
- Administrazio publikoaren gardentasuna sustatzeko interesa duten eragileak: kudeaketa publikoa aztertzeko eta ebaluatzeko ekimenak. Proiektu hau sustatzeko helburuak dira, besteak beste, administrazio publikoaren gardentasunaren aldeko apustua, elkarreragingarritasuna sustatzea, informazioa antolatzea eta, azken batean, datu publikoetatik abiatuta balioa eta aberastasuna sortzea.

## 7. irudia. EUSKADIKO BALIABIDE SOZIOSANITARIOEI BURUZKO DATU-FITXATEGI DESKARGAGARRIAK ( OPEN DATA EUSKADI PROIEKTUA)




The screenshot shows the 'OPEN DATA EUSKADI' website interface. The main navigation bar includes 'HASIERA', 'OPEN DATARI BURUZ', 'DATU-KATALOGOA', 'NOLA BERRERABILI', and 'KOMUNITATEA'. Below this, there are links for 'Datu-bilatzailea', 'Sparqi gunea', and 'APIak'. The main content area is titled 'Euskadiko Baliabide Soziosanitarioak' and lists downloadable datasets under the heading 'Datuak deskargatu'. The datasets are organized by region: Araba, Bizkaia, and Gipuzkoa. Each region lists several files in different formats (XLSX, CSV, JSON, GEOJSON) with their respective sizes in KB.

Iturria: Open Data Euskadi

2022an Open Data Euskadin argitaratutako baliabide soziosanitarioen kontsulta-datuek erakusten dute bisita kopurua izugarri jaitsi dela 2022ko ekainaren 15etik aurrera. Gertakari hori Open Datari eragiten dion intzidentzia tekniko baten ondorio da –data horretatik 2022ko urrira arte–, eta adierazitako hilabeteetan egindako kontsultak eta deskargak behar bezala erregistratzea eragozten du. Intzidentziak ezinezko egiten du kontsultatutako/deskargatutako edukien izenburuaren iturburu-kodea erregistratzea. 2022ko urrian konponduta egon arren, *Google Analytics*-en funtzionamenduak eragotzi egiten du intzidentzia-aldiari buruzko informazioa edukitzea.

## 8. irudia. BISITAK OPEN DATAKO EUSKADIKO BALIABIDE SOZIOSANITARIOETARA (2022/05/14-2022/10/25)



Iturria: Open Data Euskadiren Google Analytics

1. taula. GEHIEN DESKARGATUTAKO 25 DATU MULTZOEN ZERRENDA  
(OPEN DATA EUSKADI, 2022.10.25)

Pagina	Vistas de una página	Número de vistas de página únicas	Promedio de tiempo en la página
	292.262 % 59,6342 (48,91 % (60,6143))	233.761 % 59,6342 (48,76 % (60,3375))	00:02:50 Medio de 19 visitas (0,2143) (0,2134)
1. /catalogo/ /evolucion-del-coronavirus-covid-19-en-euskadi	67.383 (23,04 %)	47.225 (20,20 %)	00:05:29
2. /catalogo/ /retribuciones-altos-cargos-y-personal-eventual-gobierno-vasco-y-organismos-autonomos-y-entres-publicos	6.741 (2,31 %)	5.861 (2,51 %)	00:05:41
3. /catalogo/ /promociones-de-etadade-para-compra-y-alquiler-de-vivienda-protégida	4.994 (1,71 %)	4.172 (1,78 %)	00:04:59
4. /catalogo/ /retribuciones-personal-diputacion	4.442 (1,52 %)	3.669 (1,57 %)	00:06:09
5. /catalogo/ /oferta-publica-de-empleo-ope-de-la-administracion-autonomica-de-euskadi	4.029 (1,38 %)	3.106 (1,33 %)	00:01:08
6. /catalogo/ /incidencias-traffic-euskadi	3.552 (1,22 %)	2.999 (1,28 %)	00:01:52
7. /catalogo/ /calendario-laboral-de-euskadi-para-el-2022	2.721 (0,93 %)	2.332 (1,00 %)	00:03:56
8. /catalogo/ /red-de-estaciones-meteorologicas-de-euskadi	2.693 (0,92 %)	1.885 (0,81 %)	00:01:13
9. /catalogo/ /registro-asociaciones-euskadi	2.597 (0,89 %)	1.938 (0,83 %)	00:01:45
10. /catalogo/ /centros-de-salud-publicos-en-euskadi	2.577 (0,89 %)	1.991 (0,85 %)	00:01:11
11. /catalogo/ /relacion-de-puestos-de-trabajo-epi-de-los-departamentos-y-organismos-autonomos-de-la-administracion-de-la-comunidad-autonoma	2.447 (0,84 %)	2.024 (0,87 %)	00:05:42
12. /catalogo/ /biblioteca/hondarria-biblioteca-municipal	2.085 (0,72 %)	1.763 (0,75 %)	00:04:45
13. /catalogo/ /registro-de-identificacion-de-animales-de-compania-de-la-cae-regia	2.034 (0,70 %)	1.624 (0,70 %)	00:04:40
14. /catalogo/ /estaciones-meteorologicas-lecturas-recogidas-en-2021	1.792 (0,61 %)	1.163 (0,50 %)	00:01:39
15. /catalogo/ /ayudas-subsidaciones-y-becas-del-2022	1.532 (0,52 %)	1.330 (0,57 %)	00:01:10
16. /catalogo/ /centros-docentes-no-universitarios-euskadi	1.522 (0,52 %)	1.225 (0,52 %)	00:05:03
17. /catalogo/ /registro-de-cooperativas-de-euskadi	1.503 (0,51 %)	1.127 (0,48 %)	00:01:34
18. /catalogo/ /retribuciones-del-personal-funcionario-del-ano-2021	1.319 (0,45 %)	1.140 (0,49 %)	00:03:52
19. /catalogo/ /es/estaciones-transporte/estacion-de-zarautz-euskotem	1.277 (0,44 %)	1.061 (0,45 %)	00:02:12
20. /catalogo/ /biblioteca/zarauz-biblioteca-municipal-sanz-enea	1.240 (0,42 %)	1.029 (0,44 %)	00:03:56
21. /catalogo/ /biblioteca/zumaia-biblioteca-municipal	1.036 (0,35 %)	840 (0,36 %)	00:03:26
22. /catalogo/ /recursos-sociosanitarios-de-euskadi	1.034 (0,35 %)	779 (0,33 %)	00:02:32
23. /catalogo/ /expedientes-de-regulacion-de-empleo-por-situaciones-provocadas-por-el-covid-19	1.028 (0,35 %)	908 (0,39 %)	00:02:44
24. /catalogo/ /es/estaciones-transporte/estacion-de-zumaia-euskotem	1.018 (0,35 %)	851 (0,36 %)	00:01:36
25. /catalogo/ /medios-comunicacion-euskadi	964 (0,33 %)	730 (0,31 %)	00:02:38

Iturria: Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalak Zuzendaritza  
(Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Euskadi Jaurlaritza)

Atarian bertan egindako kontsultei dagokienez, Baliabide Soziosanitarioen Maparen edukietara egindako bisitaldien zifrek adierazten dute, 2022an, hilean, batez beste 108 bisitaldi izan direla, hiletik hilerako aldeekin<sup>11</sup>; adibidez, 2022ko abuztuan, Atarian gehien kontsumitutako orrietatik hamargarrena izan da, edo 2022ko martxoan, gehien bisitatzen diren orrietatik bigarrena, hileko 192 bisitaldi dituela.

<sup>11</sup> 2022ko otsailerako eta irailerako ez daturik, Baliabide Soziosanitarioen Mapa ez dagoelako Arreta Soziosanitarioko Atarian gehien bisitatu diren lehenengo 10 orrialdeen artean.



#### 4.3. WEB-ERABILERRAZTASUNeko IRIZPIDEAK

Arreta Soziosanitarioaren Atarian argitaratutako edukiak baloratzeko orduan garrantzia duen adierazlea da horien erabilerraztasuna, batik bat sektore publikoko webgune bateko<sup>12</sup> edukiak direlako, web-erabilerraztasuneko irizpideen betetze-mailaren jarraipenaren mende daudenak.

#### 2. taula. ATARIAREN WEB-ERABILERRAZTASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN EMAITZEN LABURPENA (2022.10.26KO TXOSTENA)

	Resultado
Puntuación media del sitio web	9.68
Nivel de adecuación estimado	AA
Situación de cumplimiento estimada	Parcialmente conforme

Iturria: Web Irisgarritasunaren Behatokia  
(Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa)

#### 3. taula. ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIAREN ORRIAK, WEB-ERABILERRAZTASUNeko MAILA ZENBATETSIAREN ARABERA (2022.10.26KO TXOSTENA)

Nivel de adecuación estimado	Número de páginas	Porcentaje de páginas
AA	48	94.12%
A	0	0%
No Válido	3	5.88%

Iturria: Web Irisgarritasunaren Behatokia  
(Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa)

Helburu horrekin, **2022ko urriaren 26an, Arreta Soziosanitarioko Atariaren web-irisgarritasunari buruzko txosten bat egin zuen** Web Irisgarritasunaren Behatokiak (Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioa). Txosten horretan, atariaren egokitasun-maila handia **berresten da (batez besteko puntuazioa: 9,68, 10etik), eta AA<sup>13</sup> egokitze-maila**. Horrek hobekuntza txiki bat dakar 2022ko urriaren 29an egindako txostenean lortutako 9,51ko batez besteko puntuazioaren aldean, ezarritako web-irisgarritasuneko irizpideen arabera.

<sup>12</sup> Irisgarritasun-irizpideak, *Sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuak* (zeinak Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/2102 (EB) Zuzentaraua, sektore publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa) ezarritako xedapenen arabera zehaztuak..


<sup>13</sup> Arreta Soziosanitarioaren Atariak berak eskatuta, Web Irisgarritasunaren Behatokiak (Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa) 2022ko urriaren 26an atariaren web-erabilerraztasunari buruz egindako txostenean jasotakoaren arabera: “Webgunearen batez besteko puntuazioa egoki betetzen diren erabilerraztasuneko egiaztapenen kopuruaren erakusle da, hala A egokitze-mailarekin nola AA mailarekin. Beraz, puntuazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta erabilerraztasuneko egiaztapen gehiago bete dira. Webgunearen egokitze-maila zenbatetsia (Baliogabea, A edo AA) betetzen diren egiaztapenen egokitze-mailaren mende dago. Akatsak A egokitze-mailako egiaztapenetan pilatzen badira, egokitze-maila zenbatetsia “baliogabea” izango da, nahiz eta webgunearen batez besteko puntuazioa altua izan. Webgunearen betetze-egoera zenbatetsia (Ez ados, Zati batean ados edo Erabat ados) webgune-mailako egiaztapen bakoitzaren adostasunaren mende dago (Ez dagokio, Ados edo Ez ados) “

#### 4.4. POSIZIONAMENDUA GOOGLE.ES-EN

Arreta Soziosanitarioaren Atariak, bost urteko ibilbidean, posizionamendu digital naturaleko (SEO) estrategia bat garatu du, funtsean, EAEko ekosistema soziosanitarioaren parte den publiko zabal batentzako -fideltasun-aztarnak dituen- asteroko edukien hautaketan eta sorkuntzan oinarrituta dagoena.

Estrategia horren emaitzek agerian uzten dute **Arreta Soziosanitarioaren Atariak** proiektzio ona duela sarean, eta adierazten dute **Google.es-en «Arreta Soziosanitarioa» terminoarekin egindako bilaketetan nabaritasun-maila handia duela.**

#### 8. irudia. EAE-KO ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIA GOOGLE.ES-EN POSIZIONATZEA, GAILU MUGIKORRETAN ETA MAHAI GAINEKO GAILUETAN EGINDAKO SERP ANALISIAREN ARABERA (2022.10.26)



Iturria: Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritza  
(Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza)

**2022an, emaitza horien arabera, Ataria plataforma horren laugarren tokian dago, bai mahai gaineko gailuetatik egindako kontsultetan, bai gailu mugikorretatik egindakoetan (iturria: SERP azterketa, 2022-10-26koa; horrek esan nahi du 2021ean lortutako hirugarren postutik jaitsi dela, eta, azken batean, Arreta Soziosanitarioko Atariak 2020an lortutako posizioa itzuli dela.**

Google.es-ek «Arreta Soziosanitarioa» terminoarentzako emandako emaitzen zerrendan, lehen hiru postuetan dauden web-orriak, izaera eta prestakuntza-orientazio ezberdinagatik, ezin daitezke hartu EAEko Arreta Soziosanitarioaren Atariaren lehiakidetzat, atariaren helburuak eta hartzailleak kontuan hartuta.

Era berean, azpimarratu behar da Google.es-ek «arreta soziosanitarioa» terminoarentzako eskaintzen dituen emaitzetan sarrien agertzen diren hamar orrialdeetatik batek ere ez duela Arreta Soziosanitarioaren Atariaren antzeko orientaziorik.


## 5. ONDORIOAK

Arreta Soziosanitarioaren Atariak eduki digitalen kontsumoan lortutako emaitzak, *Google.es*-en posizionamendua eta horrek ekosistema soziosanitarioko eragileen iruditerian lortutako nabaritasuna, bai eta 2022an web-erabilerraztasuneko irizpideetan izandako betetze-maila ere, EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak argitalpen-kudeaketan egindako lan onaren erakusle dira.

Laburbilduz, 2022:

- ❖ Arreta Soziosanitarioaren Atariko eduki digitalen kontsumoari dagokionez, inoizko urterik onena izan da aztertutako serie historiko osoan (2017ko apiriletik 2022ko abendura), bai eta Arreta Soziosanitarioko Buletina bidaltzen ez den hilabeteetan ere. Horrela, Atariko edukien kontsumoa aurreko urteetakoa baino egonkorragoa izan da, eta handiagoa –baita urte horietan ASSBak banatu diren hilabeteetan ere–.
- ❖ Arreta Soziosanitarioko Buletinek Arreta Soziosanitarioaren Ataria ezagutarazten eta atariko ezagutza sustatzen jarraitzen dute pertsona eta erakunde harpidetu berrietara iritsiz; beraz, gero eta gehiago dira Arreta Soziosanitarioaren Atariko eduki digitalak ezagutzen dituzten pertsonak eta horien kontsumitzaileak. Edukiak hedatzeko plataformen hautaketan izandako aldaketei esker, BASSa hartzaileen artean gehiago sartzen dela egiaztatzen duten datuetara sar gaitetzke –3.000 posta-kontu inguru–, BASSa jaso zen egunean (19. zk., 20. zk. eta 21. zk.) edo bidalketa horren hurrengo egunean Arreta Soziosanitarioko Atarira sartzen diren erabiltzaile bakarren kopurua handitu dela egiaztatu ondoren.
- ❖ Ataria bisitatzeko duen jendearentzako Baliabide Soziosanitarioen Mapako informazioaren garrantzia eta zerbitzu publikoko informazioaren izaera (Open Data Euskadi proiektua) 2022ko kontsultako datu orokorrek bermatzen dute (nahiz eta 2022ko ekainetik urrira bitarte erregistratutako intzidentzia informatikotik eratorritako daturik ez egon).
- ❖ **Posizionamendu naturaleko estrategiak (SEO) Ataria arreta soziosanitarioaren arloko informazio estrategiko, gaurkotu edo zerbitzu publikokoaren bila bisitatzeko dutenen fidelizazio-maila indartzen du 2022an.**
- ❖ Arreta Soziosanitarioaren Ataria hirugarren postutik (2021. urtea) laugarrenera (2020. urtea eta 2022. urtea) jaitsi da *Google.es*-ek «arreta soziosanitarioa» terminoarentzat emandako bilaketa-emaitzetan; hau da, **oraindik ere gune erreferentea da informazio estrategiko, gaurkotu edo zerbitzu publikoko kontsultatzeko, eta atariaren sonak EAEko mugak gainditu ditu.**

### 9 irudia. ARRETA SOZIOSANITARIOKO ATARIAREN EMAITZEN ADIERAZLEEN BILAKAERA (2017-2022)



Iturria: Bertan landua

## ESKERTZEAK

Arreta Soziosanitarioaren Ataria ez litzateke deus izango, bost urte hauetan plataforma hori EAEko eta kanpoko arreta soziosanitarioko erreferente estrategiko, informatibo eta dokumentala izateko lanean euren alea jarri dutenengatik izan ez balitz.

Hala, babesa eta laguntza eman dutenak asko diren arren, aipamen berezia merezi dute Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzako profesionalek (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) eta Hizkuntza Normalizazio Zerbitzuetako profesionalek (Osasun Saileko Osasuneko Lurralde Ordezkaritzak, Eusko Jaurlaritza), beren jardun profesional emankorrari esker Baliabide Soziosanitarioen Mapa eta eduki estrategikoak egunean eduki ahal izan direlako, eta plataformaren edukietan tratamendu elebiduna bermatuta egon delako, eta aholku teknikoak ere eskaini dizkigutelako maiz.

Guzti-guztiei, aurten ere, eskerrik asko.

**EAEko Koordinazio Soziosanitarioko taldea.**  
**2023ko urtarrilaren 3a**

ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIAREN EDUKIEN EDIZIOARI ETA KUDEAKETARI,  
NABARITASUNARI ETA POSIZIONAMENDUARI BURUZKO TXOSTENA (2021)

EAEko Koordinazio Soziosanitarioko taldea.  
2023ko urtarrilaren 3a

OSASUN SAILA  
Osasun Sailburuordetza  
*Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SALUD  
Viceconsejería de Salud  
Dirección Atención Socio-sanitaria

